

EAJrekin EAEko Gobernu osatzeko aukera zabalik utzi du Aznarrek

Euskal arazoak «estatu arazo» ez bihurtzeko eskatu die jeltzaleei

Jose Maria Aznarrek bideak zabalik utzi zituen hurrengo hauteskunde autonomikoen ostean EAJrekin gehiengo osatzeko. Dena den, emaitzak jakin arte harremanik ez duela izango azaldu zuen PPko burukideak. Aznarrek hauteskunde giroari egotzi zion EAJren «erradikalismo jitea».


INAKI URIARTE / BILBO

EAJ-PSOE koalizio gobernu eta bi alderdien dinamika «agortua» dagoela iritzi zion Jose Maria Aznarrek atzo. Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusiarekin Bilbon bildu ostean emandako prentsaurrekoan, PPko lehendakariak EAEn gehiengo berriak osatzeko aukera irekita utzi zuen.

EAEn sortzen diren gatazkak EAJk «estatu arazo» bilakatu nahi izana gaitzetsi zuen Aznarrek. Jokabide hori kritikatu ateratzeko beharrezkoa den «konfiantza markoa» berreskuratzearan aurka doala iritzi zion. PPko burukidearen iritzi, kaltegarria da Senatuaren birmoldaketa eta transferentzia prozesua estatu arazo bihurtzea.

Betalde, Aznarrek akats iritzi zion «EAJk erradikalismo jiteaz egin duen aldaketa». Mugimendu «taktikoa edo agian estrategikoa izan litekeena» hauteskunde giroan murgilduta egoteari egotzi zion burukide espainiarrek.

Bi alderdien arteko harremanak «normalak» direla berretsi arren, EAEko bidaian burukide jeltzaleekin harremanik izateko



Aznar Deustuko Unibertsitatean hizlari.

SIMAL

denborarik ez duela izan azaldu zuen Aznarrek.

Dena den, burukide espainiarrek gogorarazi nahi izan zuen Arzalluzen alderdiak botoa eman ziola Felipe Gonzalez Espainiako lehendakari izendatzeko, eta EAEko Gobernuan bi alderdi horiek koalizioan gobermatzen ari direla. Hortaz, «bere ahuleziatik krisiari irtenbidea emateko ahalmenik ez daukan Gobernuarekiko konpromezu maila bat» badaukala gogorarazi zion EAJri.

ESPAINIARTASUNA Deustuko Unibertsitatean es-

kontatik hitzaldian Jose Maria Aznarrek azaldu zuen «espainiartasun nazionala» indartzean datzala etorkizunaren gakoa. Etorkizuneko proiektuak «tokian tokiko interesetan oinarritutako jokabidea izan ordez Espainiako proiektu historikoaren baitan» egin behar direla iritzi zion.

Torturaz akusaturiko goardia zibilen auzia epaia eman zain

BILBO

1985ean Santiago Diez, Juan Jose Amezketa eta Javier Gonzalez torturaz akusatutako bi goardia zibilei eginiko epaieketa epaia eman zain geratu zen atzo.

Kepa Landa abokatuak zuzendutako akusazio partikularrik hiru kasuetan torturak izan zirela iritzi ostean, sei hilabeteko arrestatzea eta sei urteko inhabilitazio profesionala eskatu zuen Francisco Garcia kapitainarentzat eta Jose Rodriguez goardia zibilarrentzat. Gainera, kalte bakoitzarentzako hamar milioi pezeta ordaina eskatu zuen.

Landak argi utzi zuen bi pertsona horiek La Salveko koartellean instruktore eta idazkari la-

na egin zutela eta beraien aurka jo zutela, ez baitzen lortu galdeketa parte hartu zutenen izenak jakitea. Akusazioak gogor kritikatu zuen auzia epaitu aurretik bederatzita urte joaten utzi izana.

Fiskalak bere kalifikazioa aldatu eta Goardia Zibilaren medikuek egindako agiria ontzat eman zuen. Diezek bularreen eta Amezketa buruan zituzten ubeldurak autoan sartzeko orduan jasanako kolpeak zirela azaldu zuen. Hortaz, torturarik ez dela izan defenditu eta absoluzioa eskatu zuen bi auziperatuentzat.

Estatuaren abokatuak eta defentsak ere absoluzioa eskatu zuten. Azken honek esan zuenez, ETAK atxilotu guztiak torturak salatzea agindu die.

EPSK-k Frantziako espetxeetako egoeraz ohartarazi du Parisen

L. FOURCADE / PARISE

Frantziako eta Espainiako presondegiak bizi baldintzak salatu zituzten atzo Parisen emandako prentsaurrekoan Errefuxiatu eta Presoen Sustengu Komiteek, EKBK, eta Errepresioaren Kontrako Taldeak.

«Pello Mariñelarena eta Jean Groixen heriotzak Frantziak bultzatzen duen errepresioaren ondorio» dela salatu zuten. Euskal herritar eta britainiar auziperatuekiko elkartasuna azaldu zuten.

Kartzeletako baldintzak aipatu zituzten Tiotte Etxebeste, preso ohiak, Txemi Gorostiza abokatuak eta Mariñelarenaren medikuak. Ageritu zuten Frantziak eta Espainiak ez dituzela Giza Eskubideak errespetatzen. Gorostizaren iritzi, «Frantziako kartzelak Espainiaren antzekoak dira eta lehen eskubidea, osasunaren eskubidea da». Gehitu zuenaz, «Frantziaren Espainian sakabanaketaz, bakartasunaz eta jipoiketaz baliatzen dira presoek en-gaiamenduen apurtzeko».

«Fresneseko ospitalean,

presondegia bat baizik ez da» azpimarratu zuen han zazpi hilabetez egon zen Etxebeste. Bizirako paraplegikoa denak azaldu zuen «euskaldunak garelakotz egoera gogorra jasaiten dugu, presondegiko zuzendariaren esku baimen guziak direlarik». Gehitu zuen «heriotza Fresnesen egun guzietz gertatzen den gauza bat da».

«Ezin onargarria da zoz zaizkion tratamenduek ez emaitza» salatu zuen EPSKko Kristina Razinek. Mariñelarenaren familiak auzibidea hasi du heriotzaren ikertzeko. «Instituzioak erantzule dira ahal guziak horren izkutatzeko egin arren» esan zuen abokatu ukan zuen Gorostizak.

Presondegiko administrazioari leporatu zion Mariñelarenaren heriotza bere medikuak: «La Santen ez dute errespetatzen Europako Giza Eskubideen komenioko 26. artikulua eta ahal duguna egingo dugu arduradunen in-kulparazteko». Gorostizak oroitarazi zuen bi euskal preso hil direla Frantziako kartzelan azken urteotan eta zortzi Espainian 1982az geroztik.

MANIFESTAZIOA

Sagrado Corazón
Ayuntamiento
5 de Febrero
17,30. Bilbao

Jesusen Bihotza
Udaletxea
Otsailaren 5an
17,30etan. Bilbon

PASO A PASO BAKERANTZ



COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA